

Teknikarien mahaia

Apirilaren 25ean ospatutako bileraren akta

LEKUA: Azpeitiko udaletxean

ORDUA: 10etatik 12ak arte

BERTARATUTAKOAK:

UDALA

Izaskun Ceciaga	Ingurumena/Tokiko Agenda 21-prozesuaren koordinatzailea
Aitor Aranguren	Zinegotzia (prozesuaren koordinatzailea)
Maixol Odriozola	Kontu-hartzailea
Edurne Zubia	Gizarte Zerbitzuetako burua
Edurne Aranbarri	Berdintasun Teknikaria
Nerea Lopetegi	Kirol Teknikaria
Ina Sagarzazu	Kirol patronatua
Ildefonso Lizarralde	Ingeniari teknikoa
Jose Angel Aristi	Udaltzain-burua
Aintzane Agirre	Udal Euskaltegia
Aloña Larrañaga	Gazteria Teknikaria
Pilar Arrieta	Kultur Teknikaria
Joseba Ibarzabal	Kontuhartzailetzako teknikaria
Jose m ^a Galarraga	Giza Baliabideetako teknikaria

ESKUALDEKO ENTITATEAK

Jesus Agirre	Iraurgi Lantzeneko Gerentea
Jesus Mujika	Iraurgi Lantzeneko Turismo Teknikaria
Begoña Beobide	Loiola Berrikuntza Fundazioko Zuzendaria
Iñaki Zabaleta	Azpeitia Lantzen S.A.-ko Gerentea
Yurre Peñagarikano	Urkomeko Gerentea
Iñigo Amiano	Bertan Merkataritza Elkarteko Teknikaria

MINUARTIA ENEA/IKERTALDE

Ana López
Ainhoa Mitxelena

GAI ORDENA

1. Alkatearen agurra eta prozesuaren egoeraren azalpena.
2. Diagnostikoaren emaitzak ezagutarazi eta Plan berriaren oinarri izango diren lehentasunezko eremu nagusiak adostu.
3. Xedeak definitzeko proposamenak jaso.
4. Udalerriko ikuspegia definitzeko ideiak jaso.

LABURPENA

1. Alkatearen agurra eta prozesuaren egoeraren azalpena

Hasteko, Alkateak bertaratutakoei ongi etorria eman eta prozesuaren egoeraren berri ematen die.

Azpeitiko arlo sozial eta ekonomikoari buruzko Diagnostikoa jada osatuta dagoela aipatzen da. Diagnostiko hau egiteko prozesuren hasieran sortutako hiru mahaiekin batera (mahai politikoa, mahai teknikoa eta herritarren mahaia) landu da, guztion ekarpenak jasoz. Honetaz gain, udal eta eskualde mailako teknikariekin elkarriketak egin dira informazioa jaso eta beraiekin batera aztertzeke.

Horren guztiaren ondorioz, gai edo arlo bakoitzeko fitxa bat osatu da non eremu ezberdinak aztertzen diren eta, aldi berean, arlo bakoitzeko lehentasunezko eremuak aipatzen diren. Proiektuaren hurrengo fasera pasa aurretik, hau da, Plana definitu aurretik, beharrezkoa da zehaztutako lehentasun hauei balioztapen bat ematea, proposatuko diren ekintzak horietan oinarrituko baitira.

2. Diagnostikoaren emaitzak ezagutarazi eta Plan berriaren oinarri izango diren lehentasunezko eremu nagusiak adostu.

Jarraian, laguntza teknikoak diagnostikoaren emaitza nagusiak azaltzen ditu. Diagnostikoaren emaitzak hiru ataletan azaltzen dira:

- Garapen ekonomikoa eta lan merkatua
- Gizarte gaiak
- Hezkuntza, kultura, euskara eta kirola

Atal bakoitzean balorazio positiboa (aurpegitxo berdea), negatiboa (aurpegitxo gorria) eta tarteko balorazioa (aurpegitxo horia) izan duten eremu nagusiak azaltzen dira. Aldi berean, arlo bakoitzean definitu izan diren lehentasunezko eremu esanguratsuenak ere aipatzen dira.

Langabeziari dagokionez, aurkezten diren datuak 2012ko amaierakoak direnez eta ordutik honantz egoera nabarmen aldatu denez, datu eguneratua erabiltzea komenigarria dela aipatzen da. Horretarako, Loiola Berrikuntza Fundaziotik gai honen inguruan egin duten azken txostena laguntza teknikoari bidaliko diotela aipatzen da.

Bestalde, Iraurgi Lantzenetik Azpeitiak lur industrialik ez duela aipatzen da. Sektore honi bultzada bat eman nahi baldin bazaio, lur industrialak edukitzea ezinbestekoa dela komentatzen da.

Honekin lotuta, eskualdea guztiz isolatuta dagoela aipatzen da. Komunikabide hobeak izanez gero, Azpeitiak eta, orokorrean, eskualde osoak, beste eskualdeek (Goierrri eredu bezala jartzen da) duten dinamismoa eduki ahal izango lukete.

Gizarte gaiei dagokienetz eta, zehazki, biztanleriaren eboluzioari dagokionez, azken urteetan jaiotze-tasa igo dela komentatzen da. Gizarte zerbitzuetatik jaiotzen direnen artean zenbat diren bertakoak eta zenbatek dituzten guraso atzerriarrak jakitea inportantea dela aipatzen

da honek eragin ezberdinak ekar ditzakeelako. Honekin batera, immigrazioaren arloan politikak oraindik oso asistentzialak direla eta politika integratzaileetarako joera izan beharko luketela komentatzen da.

Hezkuntza eta prestakuntzaren arloan, saiakera asko egin ondoren hezkuntza-maila hobetzea ez dela lortu eta egungo eskaintzak ez duela enpresek dituzten beharrei erantzuna ematen aipatzen da.

Azkenik, Aitor Aranguren ek udalak ekonomiari egiten dion ekarpena edo udaletxeko osasun ekonomikoari buruzko azalpen bat diagnostikoan txertatzea eskatzen du.

Aurkezpena egiteko erabilitako materialak aktarekin batera bidaltzen dira.

3. Xedeak definitzeko proposamenak jaso.

Ondoren, laguntza teknikoak Planaren formulazio estrategikoaren eremuan zehaztu beharko diren xedeak lantzeko jarraian azaltzen den proposamena aurkezten du.

XEDEA		ERREFERENTZIZKO BALIOA	EGUNGO BALIOA
GARAPEN EKONOMIKOA	Establezimenduen kopurua %15ean gehitzea	2008. Urteko datua (1.473)	1.264 (2012. urtea)
ENPLEGUA	Langabezia-tasa %5 izatea (krisi aurretiko datua) Langabezia-tasa Gipuzkoako batez bestekoa baino baxuagoa izatea	-	%13 inguru (2012. urtea)
ONGIZATEA	Asistentzia eskatzen duten 3. adineko pertsonen %100ei dagokion irtenbide/baliabidea eskaintzea	-	-
ETXEBIZITZA	Etxebizitza hutsak dauden etxebizitza parke osoaren %10 baino gutxiago izatea.	Gipuzkoa 2.000 biztanletik gora dituzten udalerrietako batez bestekoa 7,9%	%16,5 (2011. urtea)
HEZKUNTZA	Biztanleriaren %60 derrigorrezko bigarren hezkuntza baino maila altuagoko ikasketak edukitzea (lanbide, erdi edo goi-mailako hezkuntza)	Gipuzkoa eta EAE-ko batez besteko datua (2010. urtean)	%52,5 (2010. urtea)

Honen inguruan ondoko ekarpenak jasotzen dira:

- Establezimenduen kopurua neurtzeko beste adierazle bat erabiltzea, establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko hain zuzen ere.
- Turismo arloan bisitari kopuruaren eboluzioa neurtzen duen xede bat finkatzea.

4. Udalerriko ikuspegia definitzeko ideiak jaso.

Azkenik, 2025 urtera begira udalerriko ikuspegia definitzen laguntzeko ideiak jasotzen dira. Horretarako txartel batzuk banatzen dira non bertaratutakoei urte horretan pentsatuz zer nolako Azpeitia imajinatzen duten oso sintetikoki (hitz bat edo bi hitzekin) azaltzea eskatzen zaien.

Jarraian txartel horietan jasotako ekarpenak azaltzen dira:

- Azpeitiaren industrialtasunarekin turismoa lotzea
- Ongizate osasuntsua
- Osasuntsua
- Guztion artean eginiko lanaren emaitza/Herritarra/Guztiona
- Justizia soziala /Berdintasuna/Jatorra/Sanoa
- Elkarbizitza/Ongizatea/Oreka
- Herri baikor eta zoriontsua/Orain nabarmentzen den tristura galduta/Bizi kalitate on bat denontzat
- Komunikazioa eta garraioak
- Gipuzkoa eta Euskadiko beste lurraldeekin egoki komunikatutako herria/Izaera industrial mantenduz herritarrei lan aukerak eskainiko dienak/Gazteek beraien bide profesionala egoki eta garapen profesionala eskainiko duen egitura enpresariak duena Enplegua sustatzea
- Gizartegintzan eta kulturaren erreferentzi bat izatea
- Giza-kualitate on bat lortzea
- Azpeitian bizi eta lan egin, bizi kalitate onekin, baina beste herrietara irekia/Arlo guztietatik iraunkorra den herria
- Landa paisaia baloreari jarri den herria izatea/1go sektorearekiko lotura estua
- Enplegua/Ingurugiro errespetagarriago bat
- Parekidetasuna
- Dinamikoa/Erreferentea

Ondoren, ideia hauekin guztiekin osatutako hitz-mapa azaltzen da:



Azkenik, bertaratutakoei hurrengo pausuak zeintzuk izango diren gogoratzen zaizkie, hurrengo bilera hemendik hilabete batera gutxi gora behera izango dela aipatuz:

- Formulazio estrategikoa adostea
- Ekintza Planaren zirriborro bat landu eta aurkeztea (hurrengo bileran)
- Ekarpinak jaso, baloratu eta txertatzea
- Ekintza Plana adostea
- Ekintzak karakterizatzea: arduraduna, deskribapena, lehentasuna, epea, kostua...

Bilerari amaiera ematen zaio.